



2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

| | |
|-----------------------|-----------------------|
| 1. ABIZENA _____ | 2. ABIZENA _____ |
| IZENA _____ | NORTASUN-AGIRIA _____ |
| LANTOKIA _____ | KATEGORIA _____ |
| AZTERKETA-EGUNA _____ | AZTERKETA-TOKIA _____ |



ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 40 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.



1. IRAKURMENA

Ariketa-mota: CLOZE-TESTA

Nola egin:

- Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakoitzak hitz bat kendu dela adierazten du.
 - Aukeratu erantzun egokiena aukeren orrian eta markatu **erantzun-orrian**.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
- Ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dituzu ondo.

LOA SEXISTA AL DA?

Loari buruzko ikerketa bitxia argitaratu du Ameriketako Estatu Batuetako zientzialari-talde batek. Andreek eta gizonek lo ezberdin egiten dutela adierazi du; andreek __1__ eta hobeto, gizonek arinago. Lorik eza, __2__, emakumeek errazago eraman __3__ dutela dio, eta gizonei ondorio txarragoak __4__ dizkiela. Ikerketa Pennsylvaniako Unibertsitateko __5__ batzuen artean egin dute, eta *Chemistry and Industry* aldizkarian __6__ dute.

Azaldu __7__, ikerketa egiteko 20-30 urte __8__ hogeita bost gizon-emakume gertutik aztertu zituzten orain hilabete __9__. Egunero, ohi baino bi ordu gutxiago lo egitera __10__ zituzten, eta beren garunean horrek zein __11__ zituen aztertu zuten.

__12__, denengan, emakumeengan zein gizonengan, logura izan zen __13__, eta kontzentratuta egoteko gaitasuna galdu zuten, __14__. Gizonen burmuinean, __15__, emakumeenean ez bezala, substantzia kimiko __16__ batzuk —TNF alfa izenekoak— aurkitu zituzten, __17__ kalte handia eragin __18__, diabetesa eta gizentasuna, esate baterako.



__19__ ikerketaren datuak aztertu __20__, ondorio bat plazaratu dute: emakumeak gehiago bizi dira, eta loa izan __21__ arrazoia. «Emakumeek hobeto egiten dute lo; hori __22__ da bizitza luzeagoa izatearen __23__ bat?» galdetu du ikerketaren arduradun nagusiak, Alexandros Vgontzas ikertzaileak.

Izan ere, jakina da emakumeak, __24__, urte gehiago bizi direla gizonezkoak __25__. Oso nabarmena da aldea, hainbat __26__. Nolanahi ere, gizonezkoek hobeto lo egingo balute, __27__, beren bizitza luzatu egingo __28__ adierazi dute ikertzaileek. __29__ hori bera eman du aditzera du Neil Stanley-k Surrey Unibertsitateko zientzialariak. «__30__ bezala, lo egitea __31__ da osasun ona izateko», azaldu du. «Ezin da pentsatu lotan gauden orduak __32__ gabeko denbora pasiboak direnik». Organismoari ordu horiek __33__ izugarria egiten diotela gogoratu nahi izan du, eta __34__ ezin dituela ordezkatu lo-eskasiak dakartzan ondorio txarrak.

Vgontzasen __35__, eguneko 24 orduak erregulatzen dituen erloju __36__ dugu denok, eta erloju horren orekari __37__, ezinbestekoa da ondo lo __38__. Gainerakoan, hormonien produkzioa aldatu egiten dela __39__ du, eta osasunak nabarmen __40__ dituela horren ondorioak. Ildo berean, __41__ lan egiteak zein 7 ordu bakarrik lo egiteak gorputzari ondorio txarrak ekar __42__ adierazi du. «Neurri batean, naturaren __43__ ari gara, eta horrek ondorioak izan ditzake», eman du aditzera.

Emakumeen eboluzioa aipatzean, Vgontzas ikertzaileak ez du bakarrik esan emakumeek lo-falta __44__ gaintzen dutela. Harantzago joan da. Hori emakumeen __45__ ondorioa izan daitekeela adierazi du. Andreak umeen gauak arretaz zaintzen gizaldi luzeak egin dituztela gogoratu du, eta agian horregatik errazago __46__ dituztela lo-eskasiaren ondorioak. Jakina da __47__ zehar fase ezberdinak izaten direla. Lo sakonean atsedean handia hartzen du pertsonak, gorputz-funtzioak nabarmen __48__ baitira. Emakumeek gau osoko loaldian, oro har, 70 minutu egiten dituzte lo sakonean, __49__, berriz, gutxiago: 40 minutu. Dudarik gabe, __50__ da Vgontzasen ustea. Izan ere, loa ere sexista ote?

Egunkaria, 2002-07-16
Egokitua



1.1. AUKEREN ORRIA

- | | | | |
|--|--|---|---|
| 1. a) gogotsuago b) bilduago c) sakonago d) zabalago | 2. a) gainera b) berriz c) gainean d) ordea | 3. a) ahala b) al c) ote d) ohi | 4. a) aipatzen b) eragiten c) atzeratzen d) murrizten |
| 5. a) ikertzaile b) laguntzaile c) hizlari d) idazle | 6. a) bideratu b) irakurri c) erditu d) argitaratu | 7. a) dutelako b) dutela c) dutenean d) dutenez | 8. a) bitartean b) bitarteko c) bitartez d) bitartetik |
| 9. a) gehiago b) hainbat c) batzuk d) zenbat | 10. a) behartu b) eraman c) moldatu d) egokitu | 11. a) arrazoi b) ondorio c) jario d) euskarri | 12. a) Legez b) Bestela c) Badaezpada d) Oro har |
| 13. a) nagusi b) kezka c) poza d) borroka | 14. a) nabarmen b) derrigor c) jakina d) tamalez | 15. a) ordeztu b) orduan c) beraz d) ordea | 16. a) kaltegabe b) kaltegun c) kaltegarri d) kaltetasun |
| 17. a) orekari b) osasunari c) nortasunari d) adimenari | 18. a) diezaieketenak b) daitezkeenak c) lioketenak d) diezaioketenak | 19. a) Zientzialariek b) Zientziatzaileek c) Zientziadunek d) Zientziazaleek | 20. a) ondoan b) ondoren c) aurretik d) orduan |
| 21. a) daiteke b) dadin c) dezake d) luke | 22. a) ote b) omen c) bestela d) behintzat | 23. a) arazoetako b) ondorioetako c) zorionetako d) giltzetako | 24. a) batez ere b) bat batean c) batez beste d) bederen |



25. a) baizik
b) baina
c) baino
d) beste
26. a) urteetakoa
b) urtetakoa
c) urtekoa
d) urteetan
27. a) agian
b) beraz
c) dena den
d) berriz
28. a) lukeela
b) zezakeela
c) lezaketela
d) luketela
29. a) Uste
b) Irudikapen
c) Sinesmen
d) Asmo
30. a) Dakigun
b) Dakigu
c) Jakinda
d) Jakina
31. a) ezinezkoa
b) alferrekoa
c) ezinbestekoa
d) behartsua
32. a) borondaterik
b) ametsik
c) susmorik
d) kontzientziarik
33. a) kalte
b) mesede
c) ilusio
d) mehatxu
34. a) ezerk
b) zerk
c) bestek
d) edozeinek
35. a) esanaz
b) hitzez
c) borondatez
d) iritziz
36. a) biokimikoa
b) zehatza
c) biologikoa
d) orekatua
37. a) berdintzeko
b) eusteko
c) txikitzeko
d) gaintzeko
38. a) egitea
b) egin
c) egiten
d) egiteko
39. a) kritikatu
b) goratu
c) azaldu
d) osatu
40. a) baztertzen
b) txikitzen
c) ezkututzen
d) antzematen
41. a) txandaka
b) epeka
c) bakarka
d) taldeka
42. a) diezazkiokeela
b) ditzakeela
c) diezaiola
d) diezaiekeela
43. a) alde
b) kontra
c) parean
d) erdian
44. a) hobe
b) hobeago
c) ondoen
d) hobeto
45. a) hitzarmenaren
b) ahuleziaren
c) inertziaren
d) eboluzioaren
46. a) galtzen
b) gaintzen
c) sortzen
d) eskuratzen
47. a) logalean
b) lotian
c) loaldian
d) lotan
48. a) suspertzen
b) bizkortzen
c) biziagotzen
d) moteltzen
49. a) gizasemeek
b) semeek
c) gizakiek
d) senarrek
50. a) eztabaidagaia
b) eztabaidakorra
c) eztabaidagaitza
d) eztabaidagarria



1.2. ZUZENKETA-ORRIA

Irakurgaia: "LOA SEXISTA AL DA?"

Ariketa-mota: CLOZE-TESTA

Baremoa: Ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

| | | | | | | | |
|----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|
| 1. | C | 2. | A | 3. | D | 4. | B |
| 5. | A | 6. | D | 7. | D | 8. | B |
| 9. | C | 10. | A | 11. | B | 12. | D |

| | | | | | | | |
|-----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|
| 13. | A | 14. | A | 15. | D | 16. | C |
| 17. | B | 18. | D | 19. | A | 20. | B |
| 21. | A | 22. | A | 23. | D | 24. | C |

| | | | | | | | |
|-----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|
| 25. | C | 26. | B | 27. | A | 28. | D |
| 29. | A | 30. | A | 31. | C | 32. | D |
| 33. | B | 34. | A | 35. | D | 36. | C |

| | | | | | | | |
|-----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|
| 37. | B | 38. | A | 39. | C | 40. | D |
| 41. | A | 42. | A | 43. | B | 44. | D |
| 45. | D | 46. | B | 47. | C | 48. | D |
| 49. | A | 50. | D | | | | |



2. IDAZMENA

Egitekoa: ESKUTITZA

Oharrak:

- Gutxienez 35 lerro idatzi behar dituzu.
- Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

GAIA: Zure aitak 86 urte ditu, eta sendagilearengana joan zarete.

Sendagileak bi belaunetan protesiak jarri behar dizkiotela esan dizue, baina , gutxienez, urtebete itxaron beharko duzuela.

Uste duzue denbora hori luzeegia dela. Idatzi eskutitz bat ospitaleko zuzendari-gerenteari, eta eskatu irtenbideren bat emateko.



5

10

15

20



25

30

35

40



45

50

55

60